

GRADU AMAIERAKO LANA 2018/19

# ZIZTADA ARTERIALAREN MINA GUTXITZEKO METODO ANESTESIKOEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA

BERRIKUSKETA BIBLIOGRAFIKOA



EGILEA: Paula Barredo López  
ZUZENDARIA: Jagoba Zarandona Calvo  
HITZ-KOPURUA: 6.001  
Gasteizen, 2019ko maiatzaren 10a

*Eskerrak eman nahi dizkiot Jagobari, kurtsoan zehar eskainitako euskarri eta laguntzagarik, lan hau aurrera ateratzea ahalbidetu duena.*

*Eskerrak nire familiari, bereziki nire amari, emandako laguntzagarik; haien hitzak bihotz eman didate urte honetan.*

*Eskerrik asko zuri Julen, nigan sinesteagarik urte osoan zehar.*

## AURKIBIDEA

<b>SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>4</b>
<b>HELBURUA.....</b>	<b>9</b>
<b>METODOLOGIA .....</b>	<b>10</b>
BILAKETA PROZESUA.....	10
ARTIKULUEN AUKERAKETA.....	12
ARTIKULUEN ANALISIA.....	12
<b>EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....</b>	<b>13</b>
LARRUAZALPEKO ANESTESIA.....	13
EZ-LARRUAZALPEKO ANESTESIA.....	15
<i>Kremak, ukenduak</i> .....	15
<i>Krioanalgesia</i> .....	17
<i>Txaplatak</i> .....	19
<b>MUGAK .....</b>	<b>21</b>
<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>22</b>
<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....</b>	<b>24</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>26</b>
<b>1. ERANSKINA. GASOMETRIA ARTERIALA LAGINA LORTZEKO PROZEDURA .....</b>	<b>26</b>
<b>2. ERANSKINA. KONTZEPTU TAULA .....</b>	<b>27</b>
<b>3. ERANSKINA. BILAKETA PROZESUA .....</b>	<b>28</b>
<b>4. ERANSKINA. IKERKETA KUANTITATIBOEN IRAKURKETA KRITIKOA .....</b>	<b>34</b>
<b>5. ERANSKINA. FLUXU-DIAGRAMA.....</b>	<b>37</b>
<b>6. ERANSKINA. KONTSULTATUTAKO LITERATURAREN LABURPEN-TAULA .....</b>	<b>38</b>
<b>7. ERANSKINA. ZUHAITZ KATEGORIALA .....</b>	<b>42</b>

## SARRERA

**Esparru kontzeptuala eta justifikazioa:** Gasometria arteriala, arnas funtzioa neurtzeko oinarrizko proba da. Laborategiko frogak oso mingarria kontsideratzen da, arteriaren kokapen anatomikoarengatik eta lagina lortzeko prozedura porrot tasa altuengatik. SEPAR-ek 2017ean, gasometria arteriala lagina lortzeko anestesia lokala erabiltzea gomendatu izan du, baina eguneroko praktikan ez da beti erabiltzen, eta pazienteen mina ez da beti kudeatzen. Mina arintzea, osasun arretaren funtsezko arloa bilakatu da. Minaren maneioa, kalitatezko osasun arreta eta pazientearen asetzeari neurri bezala identifikatu dira. Mina saihestea eta arintzea, lehentasunezko arreta estandarra da.

**Helburua:** Pertsona helduetan gasometria arterialaren ziztadak sortutako mina arintzeko estrategia anestesikoen eraginkortasuna aztertzea.

**Metodologia:** JBI scoping review metodologia jarraitu da. Artikulu originalak hurrengo datu baseetatik eskuratu ziren: Medline (Ovid), Cochrane Library, CINAHL, CUIDEN, EMBASE eta SCOPUS. Esku bilaketa burutu zen, Journal of Advanced Nursing eta American Journal of Respiratory and Critical Care Medicine aldizkarietan. Bestalde, SEPAR-eko Prozedura Gidaliburua, Praktika Klinikorako Gidak kontsultatu ziren, RNAO, Guía Salud eta NICE. Artikuluen aukeraketa burutzeko, 2000. urtetik aurrerako artikuluak, ingelesez nahiz gaztelaraz idatzitako lanak eta gaiarekin bat zetozenak aukeratu ziren.

**Emaitzak eta eztabaida:** 15 artikuluetatik, 4 artikulua larruazalpeko anestesikoen eraginkortasuna gasometria arterialaren minaren murriztean aztertu zuten; 2 lidokaina %1 eta beste 2 lidokaina %2. Ez-larruazalpeko anestesikoei buruz, kremen barruan, artikulua 1 lidokaina %5 topikoa, 2 artikulua tetrakaina %4 topikoa eta artikulua 1 EMLA® kremaren ahalegin anestesikoa gasometria arterialean aztertu ziren. 3 artikulua izotz poltsen eraginkortasuna analizatu zuten, eta 2 esprai hozgarriena. Azkenik, 2 artikulua 2 txaplata ezberdinen eragina ziztada arterialean aztertu zuten.

**Ondorioak:** Aztertutako ikerketen arabera bi estrategia eraginkorak identifikatu dira gasometria arterialaren ziztadak sortutako mina gutxitzeko: 0,2-0,7mL larruazalpeko lidokaina %1 eta %2 eta krioanalgesia izotz poltsa moduan 3 minutuz ziztada gunean aplikatzea. Etorkizunean, metodo anestesiko gehiagoen eragina aztertzen dituzten ikerketak, eta metodologia sistematiko eta lagin tamaina handia dituzten ikerketak burutzea beharrezkoa izango litzateke mina murrizteko estrategia kostu-eraginkorak identifikatzeko.

**Hitz gakoak:** “gasometria arteriala”, “anestesia lokala”, “larruazalpeko anestesia”, “anestesia topikoa”, “mina”.

## ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gasometria arteriala, arnas-funtzioa, oxigeno ekarpena, azido-base oreka eta anhidrido karbonikoaren deuseztapena aztertzen duen laborategiko proba da <sup>(1)</sup>. Proba inbasibo honek, zuzenean arteria 23G motatako orratzarekin ziztatu ondoren lortu daiteke, ala arteria batean kokatutako kateter batetik lagina atera <sup>(2)</sup>.

Puntzio arteriala, ospitale zerbitzuetan burutzen den froga diagnostikoa da; eta bereziki larrialdietan, zainketa intentsiboetan, pneumologia unitateetan, kanpo kontsultetan edo eguneko ospitaletan ateratzen da lagina <sup>(3)</sup>. Gasometria ambulatorioa, arnas patologia kronikoa duten pazienteen jarraipena eta tratamendua ezartzeko baliagarria da. Osasun zentroen ekipamenduen hobekuntza eta larrialdiko zerbitzuak, arnas gasen neurketa burutzea ahalbidetzen du <sup>(4)</sup>.

Gasometria arteriala, espirometriarekin batera, arnas funtzioa neurtzeko oinarrizko proba kontsideratzen da. Gaur egun, ezinbestekoa bilakatu da paziente neumologikoen arreta optimizatzeko <sup>(4)</sup>. Gasometria, oxigeno presio partziala ( $\text{PaO}_2$ ), karbono dioxido presio partziala ( $\text{PaCO}_2$ ), hidrogeno ioiak (pH), oxigeno saturazio arteriala ( $\text{SaO}_2$ ) eta bikarbonato ( $\text{HCO}_3$ ) kontzentrazioa neurtzeko baliagarria da. Zenbait odol analizatzaile, metahemoglobina eta karboxihemoglobina neurtzen dituzte <sup>(5)</sup>.

Lagin arterialak zenbait indikazio ditu, adibidez, arnas gutxiegitasun akutua baloratzea, jarduketa terapeutikoa ezartzeko. Honekin batera, paziente kritikoak edo arnas gaixotasun kronikoak dituzten pazienteak ebaluatzea eta tratamendua ezartzea. Arnas gutxiegitasun kronikoaren kasuan, oxigenoa edo bentilazio ez inbasiboa preskribatzeko beharra aztertzeko baliagarria da <sup>(6)</sup>. Bestalde, esku-hartze (farmakologiko zein ez farmakologiko) jaso duten pazienteen jarraipena eta balioespena burutzeko eta interbentzio horien eraginkortasuna neurtzeko lagungarria da <sup>(6)</sup>.

Ziztada arteriala burutu ahal izateko, zenbait kontraindikazio ez daudela ziurtatu behar da. Lehendabizi, Allen testa ezin da anomaloa edo positiboa izan. Zirkulazio kolateralaren odol-horniketa balioztatzeko erabiltzen da maniobra honek <sup>(7)</sup>; arteria erradiala eta kubitala iragazkorrak izan behar direlako ziztada arteriala burutzeko <sup>(8)</sup>.

Alde batetik, ziztatzerako gunea aukeratzean, infekzio lokalak edo anatomia asaldatuta dauden guneak ekidin egingo dira. Adibidez, aurretik ebakuntza jaso izan duten guneak, sortzetiko malformazioak, erredurak, aneurismak eta injerto baskularrak ziztatzea ekiditea gomendatzen da <sup>(7)</sup>. Honekin lotuta, gaixotasun baskular periferikoa duten arteriak saihestu behar dira, baita pulsu gabezia edo urria dutenak ere <sup>(6)</sup>. Bestetik, fistula arteriobensoa eta hemodialisi tratamendua jasotzen ari diren pazienteetan beste gune bat bilatu behar da arteria ziztatzeko <sup>(8)</sup>. Azkenik, koagulopatia edo antikoagulazioa dosi altuetan izatea <sup>(4)</sup>,

Raynaud gaixotasuna izatearekin batera, ziztatutako gasometria arterialaren lagina lortzeko kontraindikazio erlatiboak dira <sup>(8)</sup>.

“Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica” (SEPAR-ek), gasometria arterialaren lagina lortzeko zenbait gomendio argitaratu izan ditu. Bertan, prozedura burutzeko beharrezkoa den materiala, pazientearen prestaketa, eta prozedura azaltzen da (1. eranskina) <sup>(4)</sup>. Ziztatze gunea erabakitzeko orduan, hodiaren eskuragarritasuna eta ehun mota kontuan hartu behar dira. Muskuluak, tendoiak eta gantza ez dira minarekiko hain sentikorrak, periostioa eta zuntz-nerbiosoak bezala <sup>(9)</sup>. Odol lagin arteriala lortzeko, hainbat arteria ziztatu daitezke. Lehenengo aukera, arteria erradiala izaten ohi da, tunel karpianoan dagoena. Arteria honek, txikia eta egonkortzeko erraza da, eskumuturra zeharkatzen duelako. Bigarren aukera, fosa antekubitalean kokatzen den arteria humerala, eta azkenenengo aukera, arteria femoral da, izter-ondoko eremuan kokatzen dena <sup>(4)</sup>. Arteria brakiala edo femoral ziztatu daiteke, baina zenbait desabantaila dituzte eta horregatik ez dira maiz aukeratzen. Alde batetik, arteria kokatzea zailagoa suerta daitezke, arteria erradiala bezain azalekoak ez direlako. Gero, zirkulazio kolateral urria izateaz gain, egitura batzuegatik inguratuta daude bai arteria brakiala bai femoral, eta kaltetzeko arriskua dago teknika era egokian ez burutzekotan <sup>(9)</sup>.

Gasometria arteriala lortzeko ematen den ziztada, laborategiko frogara mingarrienera bat kontsideratzen da, bi arrazoi nagusi direla eta <sup>(10)</sup>. Alde batetik, ziztada arteriala mingarria izan daiteke arteriaren kokapen anatomikoa dela bide. Arteria erradiala, gasometria ziztatze lehentasunezko aukera da. Arteria humeralatik ateratako gasometriak, arteria erradiala baino mingarriagoak direla frogatu da; fosa antekubitala, eskumuturra bezain azalekoa ez delako <sup>(11)</sup>. Arteria erradiala, arteria brakialatik dator eta tunel karpianoan kokatzen da, erradio hezuraren gainean. Tunel karpianoa, oso gune inerbatuta da, eta bukaera nerbioso ugari ditu. Arteria erradialaren ondoan, nerbio ertaina kokatzen da, plexu brakialatik datorrena eta besaurreko aurreko aldean kokatzen diren muskuluak inerbatzen ditu. Zehatzago, besaurreko muskulu flexoreak inerbatzen ditu, karpoko flexo kubitala izan ezik <sup>(12)</sup>. Hau da, arteria erradiala ziztatzea mingarria suerta daiteke kokatzen den gunea oso inerbatuta dagoelako, eta nerbio ertaina gertu kokatzen delako. Gainera, nerbio ertainaren ondoko ziztada, hozmintzea, inurridura eta mina esku-ahurrean eta behatzetan sor ditzake <sup>(12)</sup>.

Bestetik, lagin arteriala lortzeko prozedura porrot tasa altuak ditu eta ondorioz, ziztada gehiago beharrezkoak dira. Fenomeno hau, bi arrazoiengatik batez ere gertatzen da: lehena, arteria kokatzea zaila delako batzuetan; eta bigarrena, pazienteek eskumuturra mugitzen dutelako prozedura bitartean, eta orduan lagina lortzea zaila bilakatzen da. Azken hau maiz gertatzen da, bereziki pazienteek metodo anestesikorik jasotzen ez dituztenean. Horregatik, prozedura bitartean min intentsitate oso nabarmenak sentitzen dituzte, eta ondorioz eskumuturra mugitzea ezin dute ekidin. Hortaz, pazienteek zenbait ziztada jaso behar dituzte, eta azkenean hau, minaren areagotzea ekartzen du <sup>(11)</sup>.

Funtsezkoa da kontuan izatea, pazientearentzat esperientzia desatsegina izateaz gain, lagin arteriala lortzeko saiakera bat baino gehiago egitea kostu ekonomiko bat suposatzen duela osasun sistemarentzat. Konkretuki, Osakidetzan gasometria arteriala burutzeko erabiltzen diren xiringak, *BD Preset®* motatakoak dira, eta merkaturan, 29,78 euro balio du xiringa bakoitzak (BEZ barik) <sup>(13)</sup>.

Erizainak, pazienteen artatze integrala bermatzeaz gain, ospitalean dauden baliabideen kudeaketa egokia burutzea garrantzitsua da, eta kasu honetan, anestesiko baten erabilpena hori bermatuko zuen. Larruazalpeko anestesikoen kasuan, intsulnazko xiringen kostua, 0,28 zentimokoa da, eta mepibakainazko miniplaskoa, 0,53 zentimo balio du eta 10mL-ko edukia du. Hau da, anestesiko baten infiltrazioa ziztada arteriala burutu aurretik, saiakera gehiago egitea baino ekonomikoa izateaz gain, pazientearentzat ez da hain traumatikoa izaten. Guzti honengatik, zenbat eta hoberen burutu minaren kontrola, orduan eta arrakastatsuagoa izango da gasometria arterialaren ziztada eta baliabideen kudeaketa egokia izango da <sup>(11)</sup>.

Mina, esperientzia sentsorial eta emozional desatsegina da, lesio batekin edo hura garatzeko arriskuarekin erlazionatuta <sup>(14)</sup>. Mina, munduko pertsona askoren eguneroko bizitzaren parte da, eta are gehiago ospitale batean ingresatuta daudenen kasuan. Ospitalean ingresatuta dauden pazienteen antsietatea, depresioa eta bizi kalitate mailak okerragotzen dira minaren intentsitatea areagotzen den bitartean <sup>(15)</sup>.

Mina sentitzea edo hura sentitzeko beldur izatea, erantzun fisiologikoa eragiten du gizakiaren gorputzean. Mina sentitzeko beldurra izateak, pazienteak hiperbentilatzen hastea sortarazi dezake, eta gasometria arterialaren parametroak asaldatu. Hiperbentilazio albeolarra, PaCO<sub>2</sub>-ren murrizketa sortarazten du (hipokapnia, 35mmHg baino gutxiago izatekotan), eta ondorioz, pH-ren handipena, eta bikarbonato eta PaO<sub>2</sub>-ren murrizketa ematen da. Funtsezkoa da minaren maneiua prozedura baino lehen eta bitartean era egokian burutzea, gasometria arterialaren baloreak ez asaldatzeko <sup>(10)</sup>.

Gainera, funtsezkoa da kontuan izatea, maiztasun handiko prozedura dela ospitale zerbitzuetan bereziki. Txagorritxuko ospitalean konkretuki (Vitoria-Gasteiz, Euskal Herria), gasometria arterialen kopurua esponentzialki handitu da azken urteetan. 2015. urtean, 20.185 gasometria burutu ziren, eta hurrengo urtean, 2016. urtean, 31.091; hau da, %54-ko igoera eman zen. 2017. urtean, gasometria arterialen kopurua parekatua mantendu zen, 30.885 gasometria inguru <sup>(16)</sup>.

Hori dela bide, proba hain ohikoa izanda ospitaleetan, prozedura traumatikoa izatea ekiditea ezinbestekoa bilakatzen da. Gainera, SEPAR-ek, 2017ean argitaratutako araudian, gasometria arteriala lagina lortzeko eta arterian kateter bat kokatzeko anestesia lokala erabiltzea gomendatu izan du, pazientearen mina, antsietatea eta hiperbentilazio arriskua murrizten duelako <sup>(4)</sup>.

Anestesiko lokalak, zuntz nerbiosoen inpultsuen transmisioa blokeatzeko erabiltzen dira, sentazioa murrizteko edo guztiz kentzeko helburuarekin. Analgesia eta anestesia neuroaxialak, blokeo nerbioa, larruazalpeko infiltrazioa eta tisularra eta anestesia topikoa lortzeko erabili daiteke anestesia lokala <sup>(17)</sup>. Anestesiaren larruazalpeko infiltrazioa eraginkorra da prozedura batzuetan minaren kontrola izateko; hala nola, larruazalaren kirurgian (azalaren biopsian, azalaren mentu txikietan), zaurien konponketan, abzesuen drainatzean, sarbide baskularren prozedurak eta puntzio lunbarrean <sup>(18)</sup>. Funtsezkoa da kontuan izatea anestesiko lokal baten erabilera zenbait arrisku edo albo ondorio ekarri ditzakela, anestesikoari alergia izatea ohikoa izanik. Batzuetan, anestesikoaren larruazalpeko infiltrazioa, hematoma lokala sor dezake. Anestesikoaren albo ondorio gisa, hantura lokala, azkura, hipotentsioa, eta kasu larrietan, arnasteko zailtasuna eta sukarra eman dezakete <sup>(17)</sup>.

Zitada arterialean, ezberdintasun nabarmena existitzen da anestesiko lokalen erabileran teoria eta praktikaren artean <sup>(19)</sup>, nahiz eta haren erabilera gomendatzen duen protokoloa egon arren. Praktika gidatzeko bi elementu eskuragarri daude, Estatu mailan SEPAR-eko gida eta Euskal Herrian, Osakidetzako prozedurari buruzko protokoloa <sup>(2,4)</sup>. Estatu mailan egindako hainbat ikerketetan, azalatu egin da anestesikoen erabilera ez dagoela beti ziurtatuta, faktore ezberdinak direla bide. Profesional askok defendatzen dute anestesikoaren larruazalpeko infiltrazioa zitada arteriala bezain mingarria dela. Mito honetaz gain, infiltratutako anestesia zitada arterialaren mina murrizteko gai ez dela ihardesten dute askok <sup>(19)</sup>. Honen ondorioz, prozedura mingarria eta beldurgarria izaten da oraindik paziente askorentzat ospitale zerbitzuetan.

SEPAR-ek 0,3-0,5mL Mepibakaina %2-ren administrazioa zitada arteriala baino lehen administratzea gomendatzen du <sup>(4)</sup>. Hala ere, ez da aipatzen zenbat denbora itxaron behar den anestesikoa infiltratzen denetik ahalegin anestesiko gorena lortzen den arte, momentu horretan zitada arteriala egiteko. Bestalde, anestesiko mota espezifiko horren erabilera defendatzen duen bibliografia 1991. eta 1996. urtekoak dira, eta geroztik merkatuan metodo anestesiko berriak eta berrizatuak agertu izan dira, gasometria arterialaren mina murrizteko eraginkorrak izan daitekeenak. Hau da, SEPAR-eko gomendioa orain dela 20 urteko bibliografian edo ebidentzian oinarrituta dago, eta denbora tarte horretan, alternatiba anestesiko berriak atera egin dira. Adibidez, azken urteetan anestesiko topikoek garrantzia eta protagonismoa bereganatu dute osasun-mailan. Haien aplikazioa, larruazalpeko anestesikoekin gertatzen ez den bezala, ez da inbasiboa, eta zitada arterialaren mina murrizteko aukera eraginkorra suerta daitezke.

Honen inguruko hausnarketarik ez dago, hortaz, komenigarria izango litzateke ahalik eta literatura gaurkotuena berrikustea, metodo anestesiko ezberdinen eraginkortasuna minaren maneian alderatu ahal izateko, eta aldi berean, gomendatutako dosi eta administrazio denborak kontuan hartzeko.



Minaren arintzea, osasun arretaren arlo funtsezkoa da. Minaren maneiua, kalitatezko osasun arreta eta pazientearen asetzea neurri bezala identifikatu dira. Mina saihestea eta arintzea, lehentasunezko arreta estandarra da. Ondorioz, funtsezkoa da aztertzea metodo anestesiko ezberdinen eragin anestesiko optimoa zein den ziztada arterialaren mina murrizteko.

## **HELBURUA**

Pertsona helduetan gasometria arterialaren ziztadak sortutako mina arintzeko estrategia anestesikoen eraginkortasuna aztertzea.

## METODOLOGIA

Lan honetan, literaturaren berrikusketa kritiko bezalako diseinua jarraitu da. Konkretuki, JBI scoping review metodologia burutu da <sup>(20)</sup>, gai jakin bati buruzko publikatutako literatura kokatzeko erabiltzen dena; kasu honetan, gasometria arterialaren ziztadan pertsona helduen mina arintzeko estrategia anestesikoen eraginkortasuna aztertzea. Lehendabizi, ikerkuntzaren galdera identifikatu zen. Geroago, ikerketen bilaketa eta aukeraketa egin zen, ezarritako barneratze eta kanporatze irizpideak kontuan hartuz. Ondoren, datuak parekatu ziren, eta ebidentzia eztabaidatu zen, azkenik lortutako emaitzen berri ematen.

## BILAKETA PROZESUA

Hasieran, lan honen helburua, erizainak gasometria arteriala ziztatzeko anestesiko lokalik ez erabiltzearen arrazoiak edo eragiten zituzten faktoreak aztertzea zen. Kontzeptu klabeak finkatu ziren eta datu baseetan hainbat bilaketa burutu ondoren, begiztatu zen lan akademiko honi erantzuna emateko artikulu nahikorik ez zirela aurkitu. Honen ondorioz, lanaren helburua moldatzea erabaki zen: estrategia anestesikoen eraginkortasuna aztertzea gasometria arterialaren ziztadan pertsona helduen mina arintzeko, hain zuzen.

Bilaketak egiteko **hitz gakoak** definitu ziren. Horretarako, kontzeptu klabe hauen sinonimoak bilatu, eta sinonimoak ingelesera itzuli ziren. Azkenik, hitz bakoitzaren deskriptorea datu base bakoitzeko aurkitu zen (**2. eranskina**).

Bilaketa burutzeko erabilitako kontzeptu klabeak honako hauek ziren: Hasteko, gasometria arterialari dagokionez, “*blood gas analysis*”, “*arterial blood gas analysis*”, “*arterial puncture*”, “*arterial blood gas sampling*” eta “*punción arterial*” erabili ziren. Arteria erradialari dagokionez, “*radial artery*” baliatu ziren. Gero, anestesia lokalarekin, “*local anesthesia*”, “*local anesthetics*”, “*anesthesia nursing*”, “*anestesia*” eta “*anestésicos*” erabili ziren. Larruazalpeko anestesiarari dagokionez, “*local anesthesia*”, “*local anesthetics*”, “*subcutaneous injection*” eta “*anestesia local*” erabili ziren. Anestesia topikoari dagokionez, “*topical anesthesia*” eta “*topical anesthetic*”. Lidokainari dagokionez, “*lignocaine*”, “*xylocaine*” eta “*lidocaine injection*” erabili ziren. Mepibakainari dagokionez, “*mepivacaine*” erabili ziren. Minari dagokionez, “*pain*”, “*patient harm*”, “*procedural pain*”, “*dolor*” eta “*pain management*” erabili ziren. Azkenik, erizainari dagokionez, “*nurses*”, “*nursing*”, “*enfermera(o)*” eta “*nurse*” erabili ziren.

Artikulu originalak hurrengo **datu base**etatik eskuratu ziren: Medline (Ovid), Cochrane Library, CINAHL, CUIDEN, EMBASE eta SCOPUS. Hitz klabeak datu base ezberdinetan konbinatu ziren, bilaketa ekuazioak sortuz. Lortutako emaitzen arabera, bilaketa konketuagoak burutu ziren, hitz klabe gehiago konbinatuz; ala zabalagoak, kontzeptuak konbinatuz (**3. eranskina**).

Bigarren mailako bilaketa estrategia bezala, esku bilaketa burutu zen, Journal of Advanced Nursing eta American Journal of Respiratory and Critical Care Medicine aldizkarietan, metodologikoki doitasun maila altuko artikuluak publikatzen dituztelako. Bestalde, Praktika Klinikorako Gidak kontsultatu ziren, RNAO, Guía Salud eta NICE, hain zuzen.

### **Barneratze irizpideak**

#### Argitalpen mota

Lanaren helburuari erantzuna eman ahal izateko, egokia zen diseinua onartu izan zen. Kasu honetan, metodo anestesiko ezberdinen eraginkortasuna aztertzeke diseinu mota egokiena, ikerketa kuantitatiboak dira, esperimentalak, hain zuzen.

#### Argitalpen data

2000 eta 2019 urteen bitartean argitaratutako artikuluak ikertu ziren. Urte tarte zabaldurik izan ere, gasometria prozedura azken hamarkadetan ez dituelako aldaketa nabarmenik jasan.

#### Argitalpen hizkuntza

Bilaketan, erdaraz nahiz ingelesez argitaratuta zeuden artikuluak hautatu ziren, egileak menperatzen zituen hizkuntzak zirelako.

#### Parte-hartzaileak

18 urtetik gorako eta kontziente diren parte-hartzaileak, arteria erradialean ziztatutako gasometria arteriala jasoko dutenak, edozein testuingurutan.

### **Kanporatze irizpideak**

Barneratze irizpideak betetzen ez zituzten artikuluak ez ziren hautatu.

#### Argitalpen mota

Hirugarren mailako iturrietatik lortutako informazioa ebidentzia maila baxua dela bide deuseztatu ziren. Hau da, literatura grisa, konferentziak eta adituen iritzirik baztertu ziren.

#### Argitalpen data

2000 urtea baino lehenago argitaratutako artikuluak ez ziren kontuan hartuko.

#### Hizkuntza

Menperatzen ez ziren hizkuntzetan argitaratuta zeuden artikuluak baztertu ziren.

## Parte-hartzaileak

18 urte baino gutxiagoko pertsonak baztertu ziren, eta kateter arterialetik ateratako gasometriak ez ziren kontuan hartuko.

## ARTIKULUEN AUKERAKETA

Datu baseetan bilaketa ekuazioak planteatu ondoren, artikuluen aukeraketa burutu zen. Horretarako, bilaketa ekuazio batzuetan urteen filtroa gehitu zen; barneratze irizpideetan ezarritako urteen tartea, 2000-2019 bitartekoa, hain zuzen. Hasierako aukeraketa izenburua irakurrita egin zen. Gaiarekin erlazionatutako artikuluen *abstract* irakurri ondoren, gaiarekin bat zetozenak eta barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen zituztenak aukeratu ziren. Geroago, artikuluen Full-text-ak eskuratu ziren, irakurketa osoa burutu ahal izateko.

Esku bilaketatik lortutako artikuluen izenburuak irakurri ondoren, gaiarekin zerikusia zuena eta barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen zituena aukeratu zen.

## ARTIKULUEN ANALISIA

Azkenik, lortutako artikuluen kalitatea eta lanaren helburuari erantzuteko, datuen egokitasuna ziurtatu zen. Horretarako, azterketa kritikorako taula erabili zen artikuluko bakoitzean (**4. eranskina**). Bestalde, **5. eranskinean** jarraitutako prozesua artikuluko bereganatzeko fluxu diagrama baten bitartez irudikatzen da. Gainera, ikerketa bakoitzari buruzko informazioa atera zen, taula batean irudikatuz, artikuluko bakoitzaren helburua, lagina eta jarraitutako interbentzioa datuen analisia, konparaketa eta eztatua burutu ahal izateko (**6. eranskina**).

Horrela, artikuluetan jarraitutako metodologia eta interbentzioa egokiak zirela aztertu zen. Laginaren tamaina eta ezaugarriak eta burututako interbentzioa (metodo anestesiko baten aplikazioa ziztada arteriala baino lehen) kontuan hartu zen. Talde interbentzioa eta kontrola itsutzeko estrategiak aztertu ziren. Hau da, talde kontrola plazeboa jasotzea positiboki baloratu zen. Aldi berean, kontuan hartu zen mina neurtzeko erabilitako eskala zein zen.

Azkenean, emaitzak osatzeko, 15 artikuluko lortu dira, 13 ikerketa kuantitatibo esperimental eta 2 ikerketa kuantitatibo kuasi-esperimental barneratu dira.

## EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lan akademiko honek, 15 artikulua biltzen ditu, ezarritako helburuari erantzuna emateko. Ikerketen laginei dagokionez, lagin multzo txikiena, 40 pertsonatakoa izan da, eta handiena, 200 pertsonatakoa. Zehatzago, 6 artikuluetako laginak, 40-60 pertsona bitartekoa izan da <sup>(21-26)</sup>; lagin txikiena, 40 pertsonakoa izanda <sup>(22)</sup>. 4 artikuluetan, 80 pertsona inguru lagina erabili dute <sup>(27-30)</sup>. Azkenik, 5 artikuluetan, 100-200 bitarteko lagina erabili dute <sup>(31-35)</sup>, lagin handiena, 200 pertsonatakoa izanda <sup>(31)</sup>. Sexuari dagokionez, artikuluetan ez dira ezberdintasun nabarmenik aurkitu laginen artean. Adinari dagokionez, 2 artikuluetan lagin osoaren adin batezbestekoa aipatzen da, eta ez talde kontrola eta interbentzioarena bereizita <sup>(22,26)</sup>. 7 artikuluetako laginak, 50-60 urte bitartekoak dira <sup>(21,23,28,31,33-35)</sup>, eta 6 artikuluetan, 60 urte gorako lagina <sup>(24,25,27,29,30,32)</sup>. Paziente guztiak, 18 urte gorakoak ziren, eta gasometria arteriala indikazioa zuten.

Aukeratutako ikerketak, metodo anestesiko konkretu baten eraginkortasuna gasometria arterialaren mina murrizteko aztertze helburua zuten. Minaren intentsitatea neurtzeko, 12 ikerketetan VAS (Visual Analog Scale) erabili zuten (ingelesez edo gaztelaniaz) <sup>(21,23,34,35,24-27,29-31,33)</sup>, 2 ikerketa NRS (Numeric Rating Pain) <sup>(28,32)</sup> eta ikerketa bat, 11 puntuetako eskala analogoa erabili zuten <sup>(22)</sup>.

Artikuluak aztertu ondoren, zenbait kategoriatan banatu ziren, erabilitako metodo anestesikoaren arabera. Emaitzak, 2 kategoria nagusitan banatzen dira: larruazalpeko anestesia eta anestesia ez-larruazalpekoa. Alde batetik, larruazalpeko anesthesiaren eraginkortasuna minaren maneiuaren ebidentzia azaltzen da. Bestetik, ez-larruazalpeko anestesian, 3 azpiatal banatzen direla, ukenduak, krioanalgesia eta azkenik txaplatak.

## LARRUAZALPEKO ANESTESIA

Lidokaina edo xilokaina, amida motatako farmakoa da (mepibakaina eta bupibakaina bezala), eta eguneroko praktikan gehien erabiltzen den anestesiko lokala da. Lidokaina, larruazalpeko eran infiltratu daiteke, %1, %2 eta %5 kontzentrazioan, lehena ohikoena izanik <sup>(18)</sup>. Bestalde, lidokaina sinplea edo epinefrinarekin erabili daiteke. Epinefrina daraman lidokaina, anestesikoaren efektua murriztuagoa da eta efektu hodi-uzkurtzailea du. Anesthesiaren hasiera 2-5 minututan ematen da, eta 30 minutu-2 ordu bitarteko iraupena du <sup>(18)</sup>.

Bilaketa bibliografikoan, 4 artikulua aurkitu ziren lidokaina %1 eta %2-ren eraginkortasuna aztertzen zutenak. Oro har, aurkitutako 4 artikulutik lidokainaren larruazalpeko infiltrazioari buruz, 3 aurkitu zuten eraginkorra zela. Matheson et al <sup>(22)</sup>, Hajiseyedjavady et al <sup>(23)</sup> eta France et al <sup>(35)</sup>, lidokaina %1 eta %2-ren larruazalpeko infiltrazioa ziztada gunean eraginkorrak zirela gasometria arterialaren mina murrizteko aurkitu zuten. Wade et al <sup>(21)</sup>, ordea, lidokaina %1 ziztada arterialaren ondoriozko mina murrizteko eraginkorra ez zela aurkitu zuten.

Alde batetik, Matheson et al eta Wade et al larruazalpeko lidokaina %1-ren eragin anestesikoa aztertu zuten eremu ezberdinetan. Matheson et al ospitaleratuta zeuden pazienteetan lidokaina %1 sinplea eta eraldatutakoaren eragin anestesikoa, plazebo eta interbentziorik jaso ez zuten parte-hartzaileekin alderatu zuten. 0,7mL lidokaina sinplea %1 eta 0,7mL eraldatutako lidokaina %1 zitzada arterialaren mina murrizten zutela aurkitu zuten. Konkretuki, lidokaina sinplea eraldatutakoa baino eraginkorragoa zen minaren maneian, estatistikoki esanguratsua izanik ( $p=0,001$ ) <sup>(22)</sup>.

Wade et al larrialdi zerbitzuan 1mL larruazalpeko lidokaina %1-ren eragina, anestesikorik jaso ez zuten pazienteen min puntuazioak VAS eskalan alboratu zituen. Ikerketa honetan, ordea, ez zituzten datu esanguratsurik aurkitu minaren pertzepzioari dagokionez, zitzada arteriala lidokainarekin edo hura gabe burutzean. Hala eta guztiz ere, kontuan izatekoa da zain barneko analgesia jasotzen ari ziren pazienteek (41 pazientetik, 10) min gutxiago sentitu zutela gasometria bitartean ( $p=0,105$ ) <sup>(21)</sup>.

Bi ikerketetan lortutako emaitzak kontrakoak dira. Alde batetik, anestesiko berdina egoera ezberdinetan aztertu zuten, Matheson ospitaleratuta zeuden pazienteetan, eta Wade, larrialdiko pazienteetan. Gero, administratutako lidokaina %1-ren dosia ezberdina zen (Matheson 0,7mL eta Wade 1mL). Bestalde, Matheson burututako ikerketan, anestesikoa infiltratu zutenetik zitzada arteriala burutu zutenera arte itxarondako denbora ez da aipatzen <sup>(22)</sup>. Wade, aldiz, lidokaina infiltratu zutenean, interbentzio taldeko pazienteek 10 segundoko masaje lokala (eskumuturrean) jaso zutela zehaztu zuen, eta ondoren zitzada arteriala burutu zela. Halaber, Wade-k lagin kopuru murriztua izateaz gain, ez zuten talde kontrolean plazeborik aplikatu interbentzioa itsutu ahal izateko <sup>(21)</sup>. Bukatzeko, aipatzea bi ikerketek lagin tamaina oso eskasa dutela, 40 pertsona ingurukoa, eta ondorioz, aurkezten dituzten emaitzak errepresentatiboak ez izatearen arriskua dagoela.

Bestetik, Hajiseyedjavady et al eta France et al, larrialdi zerbitzuetan 0,2 mL <sup>(23)</sup> eta 0,5mL <sup>(35)</sup> larruazalpeko lidokaina %2-ren eraginkortasuna zitzada arterialaren minean aztertu zuten. Hajiseyedjavady, lidokaina %2-ren larruazalpeko infiltrazioa, lidokaina %2 gelarekin konparatu zuen. Ikerketan, 0,2mL larruazalpeko lidokaina %2 jaso zuten pazienteek, 20 minutuz 1mL lidokaina topikoa %2 (gela) jaso zutenen baino min gutxiago sentitu zuten zitzada arterialean, ezberdintasun hauek esanguratsuak izanik ( $p=0,001$ ). Bestalde, larruazalpeko lidokaina jaso izan zuten pazienteek saiakera kopuru gutxiagotan lagin arteriala lortu zuten, lidokaina topikoa jaso zutenekin alderatuz ( $p=0,009$ ) <sup>(23)</sup>.

France et al, larruazalpeko lidokaina %2 eta etilo kloruro aerosola zitzada arteriala baino lehenago jaso zutenen min pertzepzioak, interbentziorik jaso ez zutenekin alderatu zituen. Ikerketa honetan, 0,5mL larruazalpeko lidokaina %2 jaso zuten pazienteek 10,2mm

batezbestekoa puntuatu zuten VAS eskalan; etilo kloruroa jaso zutenek, 23,9mm puntuatu zuten; eta interbentziorik jaso ez zutenek 23,4mm. VAS eskalan 13mmko ezberdintasuna klinikoki esanguratsua kontsideratu zuten. Kasu honetan, ezberdintasunak taldeen artean klinikoki esanguratsuak dira <sup>(35)</sup>.

Bi ikerketak zenbait muga aurkezten dituzte. Alde batetik, biak lagin kopuru txikiak izateaz gain, Hajiseyedjavady-k konkretuki, lidokaina %2 gelaren aplikazio denbora oso murriztua izan zen, 2 minutukoa bakarrik, kontuan hartzen badugu, anestesikoaren argibideetan, gela 30 minutuz aplikatzeak gomendatzen duela eragin anestesiko optimoa bermatzeko <sup>(36)</sup>. Bestalde, ez dute zehazten ez Hajiseyedjavady ezta France, larruazalpeko lidokaina infiltratu zutenetik zenbat denbora itxaron zuten ziztada arteriala burutzeko <sup>(23,35)</sup>.

Halaber, France-en ikerketaren kasuan, parte-hartzaileak eta ikerlariak ez zituzten itsutu, eta zein interbentzio jasotzen ari ziren jakiteko aukera zegoen. Gainera, gasometria arterialak 29 mediku ezberdin burutu zituzten, eta ez zen prozeduraren estandarizazio bat egin, hau da, mediku bakoitzak haren ohiko eran egin zuen ziztada arteriala <sup>(35)</sup>. Ikerketan ez da aipatzen medikuen gaitasun edo trebetasun maila proba burutzerako orduan. Oro har, aipatutako mugak kontuan izanda, bi ikerketek, larruazalpeko lidokaina %2-ren administrazioa gasometria arterialaren mina murrizteko eraginkorrak zirela ondorioztatu zuten <sup>(23,35)</sup>.

## **EZ-LARRUAZALPEKO ANESTESIA**

Larruazala, substantzia kimikoei iragazkortasun selektiboa duen geruza da, eta substantziak zirkulazio sistemikora iritsi daitezke. Epidermis bitarteko xurgatze ahalmena, larruazalaren funtzio fisiologiko nagusietako bat da, eta farmakoen administrazioa burutzeko erabiltzen da. Ukenduen, lozioen edo kremen aplikazioa larruazalean, masajearekin edo gabe, efektu farmakologikoaren iraupen eta intentsitate aldakorra izango dute, azalaren iragazkortasun intrintsekoa eta garraiatzaileen ezberdintasuna direla bide <sup>(37)</sup>.

### **Kremak, ukenduak**

Anestesiko topikoek, mina sentsazioaren azaleko galera lortzen dute, dermisean kokatzen diren bukaera nerbioaso askeak erasotu ostean. Hau da, nerbio bulkaden hasiera eta transmisioa oztopatzen dute, sodio kanalen funtzioa eragozten. Agente anestesiko topikoek, hiru osagaiez osatuta daude: eraztun aromatikoa, luzera ertaineko lotura ester edo amida eta amina tertziarioa. Anestesiko topikoak, krema, ukendu edo gel moduan aurkitu daitezke, eta lesiorik gabeko larruazalean erabiltzen dira, geruza lodi bat denbora batez aplikatuz <sup>(38)</sup>.

Errebisio lan honetan, 3 anestesiko topiko aztertu dira gasometria arterialaren mina murrizteko: Lidokaina %2 eta %5, tetrakaina %4 eta EMLA® krema.



Alde batetik, bi artikulu aurkitu dira (Hajiseyedjavady et al eta Cortés et al), lidokaina %2 eta %5 topikoaren eragin anestesikoa aztertu zutenak, larrialdi zerbitzuetan eta arnas funtzio laborategian hurrenez hurren <sup>(23,31)</sup>. Azaldu izan den bezala, Hajiseyedjavady, 1mL lidokaina %2 topikoa 2 minutuz eta 0,2mL larruzalpeko lidokaina %2-ren eraginkortasuna gasometria arterialaren mina murrizteko konparatu zuen; eta aurkitu zuen lidokaina topikoa ez zela eraginkorra, larruzalpekoa ez bezala ( $p=0,001$ ) <sup>(23)</sup>.

Cortés et al, 2g lidokaina %5 topikoaren VAS eskala puntuazioak, plazebozko ukenduarekin emandako puntuazioekin konparatu zuten. Ikerketan ez zituzten ezberdintasun esanguratsurik aurkitu gasometria arterialaren minaren puntuazioetan lidokaina %5 (13,2mm) eta plazebozko ukendua (14,2mm) jaso zutenen artean ( $p=0,57$ ). Bestalde, Cortés et al neurtutako bihotz maiztasunak ( $p>0,05$ ) eta PaCO<sup>2</sup> parametroak ( $p=0,68$ ) ez zituzten ezberdintasun nabarmenik izan bi taldeetan <sup>(31)</sup>.

Ikerketetan lidokainaren aplikazio denborak oso murriztuak ziren. Hajiseyedjavady, lidokaina %2 2 minutuz aplikatu zuten ziztada arteriala baino lehen, eta farmakoaren argibideetan 30 minutuko aplikazioa gomendatzen da <sup>(23)</sup>. Cortés, lidokaina %5 ukendua 30 minutuz aplikatu zuten, eta fabrikatzaileek, 90 minutuz aplikatzea gomendatzen dute eragin analgesiko egokia lortzeko (5mmko sakontasuna lortzeko larruzalean) <sup>(31)</sup>.

Bestetik, 2 artikuluetan tetrakaina %4 topikoaren ahalegin anestesikoa ziztada arterialean aztertu zuten. Aaron et al burututako ikerketa esperimenteran, 45 minutuz 1g tetrakaina %4 gela eta plazebozko gela jaso zuten parte-hartzaileen min puntuazioak alderatu zituzten. Ikerketan ez zituzten ezberdintasun esanguratsurik aurkitu interbentzio taldeko (26,2mm) eta kontrol taldeko (23,8) min puntuazioen artean <sup>(24)</sup>.

Tran et al, 30 minutuz tetrakaina %4 gela jaso zutenen min pertzepzioak, plazebozko gela jaso zutenekin alboratu zituen. Tetrakaina %4 jaso zutenen batezbesteko min puntuazioa 16,0mm izan zen, eta plazebozko gela jaso zutenena 20,7mm ( $p=0,32$ ); hau da, ez zuten ezberdintasun esanguratsurik aurkitu. Honetaz aparte, bihotz maiztasun neurketak prozedura baino lehen, bitartean eta gero aztertu zituzten. Neurketen emaitzen medien arteko konparaketan, diferentziak ez ziren estatistikoki esanguratsuak ( $p>0,05$ ) <sup>(30)</sup>.

Bi ikerketa esperimenteral hauek, tetrakaina %4 gel moduan gasometria arterialaren mina murrizteko eraginkorra ez zela aurkitu zuten. Elkarren artean, Aaron eta Tran tetrakaina gela aplikatu ostean, hesgailu konpresioa jarri zieten parte-hartzaileei, farmakoaren xurgapena errazteko. Ezberdintasunen aldetik, Aaron burututako ikerketaren lagin tamaina murriztua da ( $n=50$ ) <sup>(24)</sup>, Tran lagin tamainarekin alderatuz ( $n=81$ ) <sup>(30)</sup>. Gero, gelaren aplikazio denbora ezberdina izan zen bi ikerketetan. Gainera, farmakoaren erabilera-orrian ez da aipatzen

gomendatutako denbora aplikazioa, bakarrik farmakoaren aplikazioa ordu batekoa baino gutxiago izan behar dela <sup>(39)</sup>.

Azkenik, bilaketan bibliografikoan, artikulua aurkitu zen EMLA® kremaren (Lidokaina/prilokaina) eragina aztertzen zuena. Godoy et al burututako ikerketa esperimentalean, 30 minutuz 1cc EMLA® kremaren efektu analgesikoa aztertu zuten gasometria arterialean, min puntuazioak plazebozko krema jaso zuten parte-hartzaileekin. Ikerketan, ez zituzten ezberdintasun nabarmenik aurkitu ez minaren pertzepzioan ( $p=0,78$ ), ezta PaCO<sub>2</sub> parametroetan ( $p=0,6$ ) krema anestesikorekin edo anestesikorik gabe. Godoy et al burututako ikerketa, EMLA® kremaren eraginkortasuna gasometria arterialaren mina murrizteko aztertzen zuen bakarria da. Lanaren emaitzak ez dira oso esanguratsuak, lagin tamaina murriztua izateaz gain, kremaren aplikazio denbora egokia zein den ez da ezagutzen. Anestesikoaren erabilera-orrian, orratzen txertaketa egiteko, krema 60 minutu aplikatzea gomendatzen du, erreferentzia hau oso orokorra izanik <sup>(26)</sup>.

Ikerketa bakoitza aztertu ostean, ondorioztatu daiteke ebaluatutako anestesiko topikoak krema edo ukendu moduan ez direla eraginkorrak gasometria arterialaren mina murrizteko <sup>(23,24,26,30,31)</sup>. Ukendu eta krema anestesikoen gomendatutako denbora aplikazioa 60-90 minutu araberakoa da; eta ikerketetan bakarrik 30-45 minutu inguru aplikatu zituzten. Hau da, ikerketetan ez zituzten ukenduak behar adina denbora aplikatu haren efektu anestesiko optimoa lortzeko.

### Krioanalgesia

Krioterapia, hotzaren aplikazioa lokala edo orokortua da, eta helburu terapeutiko bat edo gehiagorekin aplikatzen da. Hotzak zenbait helburu ditu, eta hoietako bat, efektu analgesikoa da. Krioanalgesia nerbio sistema periferikoan eragina izaten du, jarduera sinpatikoa denbora batez blokeatzen. Honetaz aparte, hodi-uzkurdura sortzen du, eta ondorioz, odoljariora murrizten du. Hau da, krioanalgesia, gasometria arterialaren mina murrizteko alternatiba ez farmakologikoa, ez inbasiboa eta ekonomikoa bilakatu da <sup>(40)</sup>.

5 artikulua aurkitu ziren krioanalgesiaren efektua gasometria arterialaren mina murrizteko aztertzen zutenak. Hoietako 3, izotz poltsen eragin anestesikoa aztertu zuten gasometria arterialean <sup>(25,27,34)</sup>. Azkenik, 3 artikuluetan, esprai hozgarrien efektua analizatu zuten zitzada arterialaren mina murrizteko <sup>(28,32,35)</sup>.

Alde batetik, Haynes et al, Bastami et al eta Shaaban, izotz poltsen eraginkortasuna gasometria arterialaren mina murrizteko aztertu zuten. Haynes, talde interbentzioan 12 kubitu zerman izotz poltsa 3 minutuz aplikatu ostean, interbentziorik jaso ez zutenen VAS puntuazioekin alderatu zituen. Ikerketan, izotz poltsak jaso izan zutenen batz besteko mina

VAS eskalan 7mm-koa izan zen; eta talde kontrolean, aldiz, 20mm-koa. Hau da, ezberdintasuna esanguratsua izan zen ( $p=0,01$ )<sup>(27)</sup>.

Bastami et al burututako ikerketa kuasi-esperimentalean, izotz poltsak 5 minutuz aplikatu zituzten talde interbentzioan. Ikerketan aurkitu zuten izotz poltsak jaso zutenen min puntuazioa murriztuagoa zela talde kontrolarekin baino, ezberdintasuna estatistikoki esanguratsua izanik ( $p=0,001$ ). Bestalde, neurtutako bihotz maiztasunak prozedura baino lehen eta bitartean ez ziren esanguratsuak izan bi taldeetan ( $p>0,05$ )<sup>(25)</sup>.

Beste ikerketa kuasi-esperimentalak, Shaaban egindakoa, izotz poltsak 10 minutuz aplikatu zituen hesgailu batekin, eta mina eta bihotz maiztasuna neurtu zituen. Ikerketan, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren bi taldeen min puntuazioen artean ( $p=0,01$ ). Gainera, prozedura bitartean neurtutako bihotz maiztasunak ezberdinak ziren, 78lpm interbentzio taldean, eta 86lpm talde kontrolean ( $p=0,03$ )<sup>(34)</sup>.

Hiru ikerketetan, gasometria arterialak eskarmentua zuen profesional bakarra burutu zituen, eta hau positiboa da, prozedura era sistematiko eta bidezko batean burutzen zela bermatzeko. Hala eta guztiz ere, hiru ikerketek muga nagusi bat partekatzen dute, parte-hartzaileen itsutzea. Zaila da parte-hartzaileek ez sumatzea zein taldeetan zeuden; baina ez zituzten estrategiarik aplikatu interbentzioa hain agerikoa ez izateko. Bestalde, ez dago adostasunik izotzaren aplikazio denboran: Haynes, 3 minutu aplikatu zuen<sup>(27)</sup>, Bastami 5 minutu<sup>(25)</sup> eta Shaaban, ordea, 10 minutuz<sup>(34)</sup>. Ikerketa gehiago behar dira izotzaren denbora aplikazio optimoa zein den aztertzeko, eta izotzaren erabilera praktikara eraman ahal izateko.

Bestetik, France et al, Ballesteros et al eta Farahmand et al etilo kloruroaren eraginkortasuna gasometria arterialaren mina murrizteko aztertu zuten. Kloruro etiloa anestesiko topiko bat da, esprai moduan erabiltzen dena prozedura inbasiboak burutu aurretik, kirurgia txikietan eta kirol-medikuntzan. Larruazalean aplikatzean, hozte tisularra lortzen du ( $-20^{\circ}\text{C}$ ), nerbio periferikoen sentsibilitate falta eta efektu anestesikoa lortuz<sup>(41)</sup>.

France et al, etilo kloruro espraiaren eragina eta 0,5mL larruazalpeko lidokaina %2-rena, interbentziorik jaso ez zuten parte-hartzaileen min puntuazioekin konparatu zituen. Etilo kloruroa jaso zutenek 23,9mm, lidokaina %2 10,2mm, eta interbentziorik jaso ez zutenek 23,4mm puntuatu zuten VAS eskalan. Hau da, etilo kloruroa ez zen eraginkorra izan gasometria arterialaren mina murrizteko<sup>(35)</sup>.

Ballesteros et al orain dela gutxiko ikerketa esperimentalean, larrialdi zerbitzuan, etilo kloruro espraiaren eragin anestesikoa, plazebozko espraiarekin konparatu zuen. Ikerketan ez zituzten ezberdintasun esanguratsurik aurkitu minaren pertzepzioan ( $p=0,72$ ). Gainera,

prozedura burutzeko zailtasuna, saiakera zenbakia eta denbora espraia aplikatu zenetik odol lagina lortu arte erregistratu zuten, baina ez ziren ezberdintasun esanguratsurik aurkitu <sup>(32)</sup>.

Farahmand et al, larrialdi zerbitzuan esprai hozgarriaren eraginkortasuna zitzada arterialaren mina murrizteko, ura zeraman espraiarekin konparatu zuen. Ikerketan aurkitu zuten min puntuazioak antzerakoak zirela interbentzio eta kontrol taldean ( $p=0,94$ ) <sup>(28)</sup>.

Hiru ikerketetan, etilo kloruro espraia gasometria arterialaren mina murrizteko eraginkorra ez zela ondorioztatu daiteke. Hala ere, ikerketek zenbait muga aurkezten dituzte. 3 ikerketetan interbentzioa itsutu ahal izateko estrategiak martxan jarri dituzte, baina kontuan hartu behar da etilo kloruro aerosola larruazala hozten duela, eta plazebozko espraia, ordea, ez du hotz sentiazioa uzten. Orduan, parte-hartzaileek susmatu zezaketzen zein taldetan zeuden. Bestalde, Farahmand et al burututako ikerketan soilik, lagin arterialak pertsona bakar batek atera zituen, bigarren urteko mediku egoiliarra, konkretuki <sup>(28)</sup>. France et al ikerketan, ordea, gasometria arterialak 29 mediku ezberdin atera zituzten <sup>(35)</sup>, eta Ballesteros et al, larrialdi zerbitzuko erizain ezberdinak, kopurua ez da aipatzen <sup>(32)</sup>.

#### Txaplatak

Txaplata transdermikoa, geruza anitzeko sistema da eta hiru atal nagusi ezberdintzen dira: itsasgarria, osagai aktiboa eta indartzaileak <sup>(37)</sup>. Bilaketa bibliografikoan, bi ikerketa aurkitu dira 2 txaplata ezberdinen eragin anestesikoa aztertzen zutenak: Lidokaina/tetrakaina eta lidokaina/prilokaina <sup>(29,33)</sup>.

Ruetzler et al. egindako ikerketa esperimentalean, Rapydan txaplataren (lidokaina/tetrakainazko txaplata) ahalmen anestesikoa larruazalpeko lidokaina 1%-arekin konparatzen du. Talde interbentzioan, Rapydan txaplata 20 minutuz jarri zieten eta gero 0,5mL infiltrazio salinoa jaso zuten zitzada arteriala baino lehen. Talde kontrolean, plazebozko txaplata 20 minutuz ipini zieten eta ondoren 0,5mL larruazapeko lidokaina 1%. Ikerketan, Rapydan txaplata eta infiltrazio salinoa jaso zutenek, plazebozko txaplata eta larruazalpeko lidokaina jaso zutenek baino min gutxiago sentitu zuten zitzada arterialean ( $p=0,001$ ) <sup>(29)</sup>.

Micu et al ikerketa esperimentalean, lidokaina/prilokaina txaplata ordu batez aplikatu zieten, eta krema hotza jaso zuten eta interbentziorik jaso ez zuten parte-hartzaileen min puntuazioekin konparatu zituen. Ikerketan ez zuten ezberdintasun nabarmenik aurkitu ez minean ( $p=0,354$ ) ezta antsietate puntuazioetan ( $p=0,350$ ). Hau da, lidokaina/prilokaina txaplataren eraginkortasuna gasometria arterialaren mina murrizteko ez dute frogatu <sup>(33)</sup>.

Aurkitutako bi artikulak, bi txaplataren eragin analgesikoa aztertu zuten zitzada arterialean. Artikulu bakoitzean, txaplata mota bat aztertzen dute, Ruetzler et al. lidokaina/tetrakaina <sup>(29)</sup>, eta Micu et al. lidokaina/prilokaina <sup>(33)</sup>. Aman komunean, lidokaina osagaia dute. Bi artikulak ondorioztatzen dute aztertutako txaplatak ez direla eraginkorrak

ziztada arterialaren mina murrizteko <sup>(29,33)</sup>. Hala eta guztiz ere, ez dira aurkitu txaplata mota konkretu baten eraginak aztertzen dituzten ikerketa nahikorik. Hori dela bide, ezin da ondorioztatu ezta orokortu txaplatak eraginkorrak direla gasometria arterialaren mina murrizteko.

## **MUGAK**

Hasieran, errebisio lan honen helburua erizainak eguneroko praktikan ziztada arterialean anestesiko lokalik ez erabiltzearen arrazoiak edo eragiten dituzten faktoreak aztertzea zen. Gai konkretu honi erantzun egokia emateko ez ziren artikulua nahikorik aurkitu eta gainera, aurkitutako ikerketen diseinuak limitazioak azaltzen zituzten. Gauzak horrela, gradu amaierako lanaren helburua eraldatu zen, estrategia anestesikoen eraginkortasuna ziztada arterialaren minean aztertzea.

Gai honekin ere zailtasunak eman ziren kalitatezko artikulua aurkitzerako orduan. Bilaketa prozesuan zehar, emaitza kopuru handiak lortu ziren, baina oso gutxi gairekin bat zetozenak. Halaber, lanerako hautatutako artikuluek ezarritako barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen dituzte, baina ikerketa batzuen kalitatea hobetuz izan litzateke. Artikulu batzuetan interbentzioa ez zen era sistematiko batean aplikatu (adibidez, ziztada arteriala profesional ezberdinak burutu zituzten esperientzia maila ezberdinekin), eta gainera, lagina itsutzeko estrategia urriak martxan jarri zituzten. Guzti honen ondorioz, kasu batzuetan artikuluetan lortutako emaitzak alderatzea zaila bilakatu zen, ikerketetan bideratutako metodologia eta lagin tamainak oso ezberdinak eta heterogeneoak baitziren.

Bestalde, ziztada arterialaren ondoriozko mina neurtzeko ezberdintasunak aurkitu ziren. VAS eskalan, mina 0-10 puntuatzen da, 0 inolako minik izanda, eta 10 min jasanezina. Hala ere, artikulu batzuetan, mina 0-100 neurtu zuten. Honetaz gain, kontuan hartu behar da minaren datuak aurkezteko era. Artikuluen batean, talde kontrolaren eta talde interbentzioaren min puntuazioen batezbestekoak aipatu ziren. Baina artikulu gehienetan, bakarrik aipatzen zen  $p$  balorearen esanguratasuna, eta ondorioz, metodo anestesikoa eraginkorra zen minaren murriztean ala ez. Gero, artikulu batzuetan, ziztada arteriala burutu zuen pertsona berbera erregistratu zuen minaren intentsitatea, eta beste batzuetan, ordea, ikerlari batek erregistratu zuen. Aipatutako ezberdintasun hauek minaren intentsitatearen erregistroan eta aldaketa esanguratsuetan, eragina izan daitezke artikulu bakoitzaren emaitzetan, eta ondorioz, zaila izan da emaitzak alboratzea.

Azkenik, aipatzea gure herrialdean gasometria arteriala erizainek burutzen duten proba dela, medikuek aldeztu aurretik preskribatzen dutena. Hala ere, errebisio lan honetan erabilitako artikuluetan prozedura burutu zuten profesionalek medikuak ziren.

## ONDORIOAK

Literaturaren berrikusketa kritiko honen bidez, gasometria arterialaren mina murrizteko metodo anestesiko ezberdinak existitzen direla ikusatu daiteke. Gasometria arteriala prozeduraren mina ekiditea beharrezkoa dela agerian jartzen da, eta horretarako, funtsezkoa da metodo anestesiko eraginkorra eta egokia osasun zerbitzuaren arabera aukeratzea. Hala eta guztiz ere, orokorrean azaldutako metodo batzuen eraginkortasuna, ebidentzia altuko ikerketa gehiago behar dituzte praktikan aplikatu ahal izateko.

Alde batetik, larruazalpeko anestesikoari buruzko artikuluak bilatzerako orduan, bakarrik larruazalpeko lidokainaren eraginkortasunari buruzko ikerketak aurkitu izan dira. Aurkitutako artikuluak, 0,2-0,7mL larruazalpeko lidokaina %1 eta %2 gasometria arterialaren mina kontrolatzeko eraginkorrak direla frogatu zuten, aipatutako mugak aintzat hartuz. Dena den, mepibakaina anestesikoari buruzko ikerkuntza falta agerikoa da. Gainera, SEPAR 2017an 0,3-0,5mL larruazalpeko Mepibakaina %2 erabiltzea gomendatu zuen <sup>(4)</sup>, baina bibliografian ez dira ikerkuntza eguneratuak edo ebidentzia maila ertain-altukoak aurkitu larruazalpeko anestesiko hori egokiena dela argudiatzen dutenak. Ondorioz hau guztia kontuan hartuko beharko genuke emaitzak gure egunerako praktikara ekartzeko momentuan.

Bestetik, krema eta ukendu anestesikoen ahalmena ziztada arterialaren mina murrizteko aztertzen dituzten ikerketa gehiago behar dira ebidentzia maila sendoa lortzeko. Bildutako artikuluak krema eta ukenduei buruz ez zuten frogatu eraginkorrak zirela gasometria arterialaren mina murrizteko. Izan ere, ez zuten krema anestesikoak fabrikatzaileek gomendatu zuten denboran aplikatu. Ondorioz, artikuluetan, ez zuten efektu anestesiko optimoa bermatu.

